

Jardunaldi Teknologikoa "Software adimenduna Industria adimendunentzat" gaiaren inguruan

Donostia - 2016ko Ekainaren 7a - Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, SPRIk eta Miramon Enpresa Digitalak jardunaldi dibulgatzaile bat antolatu dute "**Software adimenduna Industria adimendunentzat**" izenburupean. Jardunaldia gaur, asteartea, burutu da Donostiako Miramongo Parke Teknologikoko Auditorioan eta 200 pertsona baino gehiago izan dira bertan.

Jardunaldia "Gipuzkoa Teknologikoa"ren hamalagarren edizioan barneratzen da eta enpresak laugarren industria iraultzara egokitzeke egiten ari diren ekintzak ezagutzeko interesa duten profesionaleri eta enpresariei zuzendua egon da.

Pascual Dediosek, Espainia eta Portugaleko Siemens Industryko Zuzendariak eta Siemens Industry Software-ren Presideneak, **Aitor Cobarenak** Spriko Teknologia eta Berrikuntza Zuzendariak, **Gustavo Lascurainek**, Pasabaneko Zuzendari Nagusiak eta **Eneko Astigarragak**, CodeSyntax Internet Solutionseko Gerenteak, besteak beste, parte hartu duten jardunaldian argi geratu da gaur egun gure enpresen erronka nagusia egungo merkatu aldakor eta lehiakor honi erantzuna ematea dela, bezeroari eskatzen duena eskainiz eta produkzioa egokitzuz enpresa lehiakorra izaten jarraitu dezan.

Jardunaldian zehar gehien errepikatu den kontzeptu bat laugarren industria iraultza izan da, argi utziz laugarren industria iraultza berehalakoa dela. Gure enpresak azkarragoak, konektatuagoak eta gauzak aurre ikusteko ahalmen handiago edukitzea ahalbidetuko dituen errealitate bat da: informazioaren bitartez balioa gehituko dute eta horrez gain, berrikuntza gehituko dute aurrerapen teknologikoak erabiliz.

Aurrerapen teknologioei esker enpresek lortzen dituzten etekinak begibistakoak dira, produktibitatea handitzen da, eraginkortasuna handitzen da, kalitatea denbora errealean kudeatzen da, kostuetan aurrezten da eta produkzio prozesuetan malgutasuna handitzen da. Dena den kontutan izan behar da ere etorkizuneko enpresak aurrerapen teknologiko hauek guztiak suposatzen duten arriskuekin bizi beharko direla, eta baita kontrol sistema eta industria kudeaketaren inguruan dauden mehatxuekin ere.

Gipuzkoa Teknologikoa

"Gipuzkoa Teknologikoa" programa 2003an sortu zen. Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera urtero bi jardunaldi antolatzen ditu. Jardunaldi hauetan informazioaren eta komunikabideen teknologien erabilpenarekin erlazioa duten gai ezberdinak jorratzen dira: interneten segurtasuna, tresna hauek negozio katea hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak, 2.0 Webak, sare sozialak, mugikortasuna, online marketinga, Gauzen Interneta, Big Data...

Laguntzaileak

Antolatzaileak



Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347